

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y  
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO  
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA  
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y  
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL  
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Sanz Lehendakariak basoen gestioari buruzko jardunaldia ireki du Natura 2000 Sarearen barruan

*Nafarroako lurraldearen % 44 gestio jasangarria behar duten zuhaitzietik osatzen dute*

Miércoles, 06 de abril de 2011

Miguel Sanz Sesma Nafarroako Lehendakariak [Natura 2000 eta Basoen Gestioa](#) jardunaldia ireki du gaur goizean Iruñeko Baluarte Nafarroako Biltzar Jauregian. Jardunaldia Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak antolatu du eta Departamentuko kontseilaria, Begoña Sanzberro Iturriria, izan du lagun Lehendakariak. Hainbat administrazio publikotako basogintzako teknikariak eta adituak ere han izan dira zuhaitziak modu jasangarrian gestionatzeko burutzen diren jarduerak aztertzeko.

Nafarroak zuhaitzietik lurraldearen % 44 okupatzen du eta zuhaitzi horien % 75 Gobernuarena eta udalena da. Basoen azalera horretako 41 tokik Natura 2000 Sarea osatzen dute eta lurraldearen % 25 okupatzen dute. Gauzak horrela, beharrezkoa da erabilera eta gestio jasangarrirako planak lantzea gunen horien aprobetxamendu ekonomikoa eta ingurumenaren hobekuntza bateratu ahal izateko, Sareak zehazten dituen balioak aldatu gabe.

Hori lortzeko, Nafarroako Gobernuak basoen antolamendurako planak burutzen ari da egurraren ustiapenez arduratzen diren enpresekin eta erakundeekin elkarlanean. Plan horiek zuhaitzietik % 60tan aplikatu dira. Basozaintza ziurtatzeko planak ere burutzen ari da Gobernuak eta horiek, aurretik, zuhaitzietik % 50ek izango zituzte. Bi bitarteko horiek mendiak modu jasangarrian gestionatzea bermatzen dute. Egurraren salmenta Nafarroako iparraldeko udalen baliabide iturri nagusietako bat; basogintzaren sektorearekin loturiko 400 enpresa inguru daude eta gutxi gorabehera 5.000 langile egonkor inguru dituzte.



Natura 2000 eta Basoen Gestioa jardunaldia. Sanz Lehendakaria eta, ondoan, Sanzberro kontseilaria eta Andrés Eciolaza Ingurumeneko zuzendari nagusia

Sanz Lehendakariak

Nafarroan basoak estimatzeko eta zaintzeko dagoen aspaldiko ohitura azpimarratu du. Basoen antolamendurako lehenengo planak 1905ean egin ziren:

"Gune naturalak etengabe baloratu dira gure Erkidegoaren historian habitataren eta kulturaren funtsezko zatia direlako, oso sentimendu garbia da; gaur egun bizirik dago eta garrantzi berezia du. Baliteke fenomeno horren arrazoia Nafarroako baso gehienak jabe pribatuenak izan ordez, herriarenak direlako izatea, hau da, udalenak, kontzejuenak, batzarrenak, mankomunitateenak edo Gobernuarenak berarenak. Basoen erabilera partekatuz gero, natura-ondarea zaintzeak eta hobetzeak duen garrantzia argiago ikusten da eta beharrezkoagoa da", esan du Lehendakariak.

Irekierako mintzaldiaren ondoren, jardunaldiaren programari ekin diote eta bi mahai-inguru egin dira bata bestearen ostean. Lehenengoa, Natura 2000ren Gestioa izenekoa, Andrés Eciolaza Carballo Nafarroako Gobernu Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiak moderatu du eta izen horren pean babestuta dauden lekuen gestioari buruz hitz egin du.

[Natura 2000 Sarea](#) Rioko Goi-bileran (1992) ezarritakoa oinarri hartuta Europan zehaztu den sarea da. Sarearen helburua 92/43/CEE Direktibaren I. eta II. eranskinetan erkidegoarentzat interesgarriak diren landare eta animalien espezie eta habitatak kontserbazio egoera onean daudela ziurtatzea da. Horretarako, irizpide ekologikoak, ekonomikoak eta sozialak bateratzen dira eta, hala, garapen jasangarria lortzen da.

Nafarroak bere lurraldearen 250.000 hektarea baino gehiago proposatu ditu Natura 2000 sarean gehitzeko. Azalera handiko guneak dira eta askotariko erabilerak dituzte: nekazaritza, basozaintza, jolaserako jarduerak, ehiza, arrantza, industria eta garraio azpiegiturak. Leku horietan gestio plan jasangarria aplikatuz gero, modu eraginkorren jardun daiteke lursail horietan.

Bigarren mahai-ingurua Francisco Javier Adell Almazán Ingurumen, Landagune eta Itsas Ministerioko Basoen Plangintza Zerbitzuko kideak moderatu du. Basoen gestio jasangarria burutzeko hainbat administraziook jarraitu dituzten irizpideak azaldu dira.



Natura 2000 eta Basoen Gestioa jardunaldia. Ekitaldian izan den jendea